OINARRIAK

Lehenengoa.-Plan Partzial hau Asparrena eta Donemiliagako lursoru urbanizagarri industriala zehatz mehatz arautzeko idatzi da, izan ere, bi udalerri horiek sektore jarraigabe bakarra osatzen dute.

Bigarrena.- Plan Partzialaren lurralde eremuak udalerri bat baino gehiago hartzen duenez, espedienteari hasierako onespena emateko eskumena Herrilan eta Hirigintza diputatuari dagokio.

Hirugarrena.- Planaren agiriak aztertu ondoren, Plangintza Urbanistikoko Arautegiaren 43 artikulutik 63ra bitartean zehaztutako agiriak eta xedapenak jasotzen dituela ikusi da.

Era berean, Planak bi udalerri horietan indarrean dauden Arau Subsidiarioetako xedapenak betetzen ditu.

Laugarrena.- Aztertzen ari garen kasuan, aurretiazko baimena izapidetzako egintza baino ez da juridikoki, prozedurak aurrera egin dezan eta haren edukia argitara dadin balio duena; beraz, ez du aurreiritzirik ematen behin betiko onartzeko egintzari dagozkion erabakiez.

Hori dela eta, dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Asparrena-Donemiliagako Plan Partzial Industrialaren espedienteari hasierako onespena ematea. Araba Garapen Agentziak sustatu du espediente hori.

Bigarrena.- 15 egunetan zehar jendaurrean jartzea, interesdunek espedientea Hirigintza Zerbitzuan aztertu eta egoki deritzoten alegazioak aurkez ditzaten. Iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen denetik hasiko da zenbatzen epe hori.

Hirugarrena.- Asparrena eta Donemiliagako udalak entzuteko 30 eguneko epea irekitzea, Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko apirilaren 19a.– Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Parcial se redacta para ordenar pormenorizadamente los suelos urbanizables industriales de los municipios de Asparrena y San Millán que conforman un sector único discontinuo.

Segundo.- Dado que el ámbito territorial del Plan Parcial abarca a mas de un municipio, la competencia para la aprobación inicial del expediente corresponde al Diputado de Obras Públicas y Urbanismo.

Tercero.- Analizada la documentación del Plan, se comprueba que contiene las determinaciones y documentos señalados en los artículos 43 a 63 del Reglamento de Planeamiento Urbanístico.

Asimismo, el Plan cumple las prescripciones establecidos en las Normas Subsidiarias vigentes de los dos municipios afectados.

Cuarto.- La naturaleza jurídica de la aprobación inicial en el caso examinado tiene el carácter de acto de trámite, simple impulsor del procedimiento que posibilita la publicación de su contenido, sin que suponga, de ningún modo, prejuzgar decisiones reservadas al acto de aprobación definitiva.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar inicialmente el expediente de Plan Parcial del Sector Industrial de Asparrena-San Millán, promovido por Álava Agencia de Desarrollo.

Segundo.- Iniciar un periodo de exposición pública de 15 días a partir de la publicación de la presente Orden Foral en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, periodo durante el cual podrán presentarse cuantas alegaciones se estimen oportunas, pudiendo examinarse el expediente en el Servicio de Urbanismo.

Tercero.- Abrir un periodo de 30 días, a partir de la publicación de la presente Orden Foral en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, para dar audiencia a las Corporaciones Locales de Asparrena y San Millán.

Cuarto.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de abril de 2002.– El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

## HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

**2.641**

**289/2002 FORU AGINDUA, apirilaren 19koa, Trespuenteseko 40 zenbakiko lurzatiaren Barne Erreformako Plan Bereziaren espedienteari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Lehena.- Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2002ko otsailaren 20an 3109 zenbakiaz sartu zen idazkiaren bitartez, Iruña Okako Udalak Trespuenteseko 40 zenbakiko lurzatiaren Barne Erreformako Plan Bereziaren espedienta igorri zion Arabako Foru Aldundiari.

Bigarrena.- 2001eko irailaren 25ean Alkateak emandako ebazpenaren bitartez espedientea hasieran onartu zen eta jendearen aurrean jarri zen hamabost lanegunez. Horretarako, Arabako Lurralde Historikoaren 117 zenbakiko ALDIZKARI OFIZIALean (2001eko urriaren 15ekoa) eta urte eta hil bereko 31ko “El Periódico de Álava” eguLnkarian iragarki bana jarri zen.

Hirugarrena.- Jendearen aurrean jartzeko epean ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu; beraz, Udalak, 2001eko abenduaren 31an egindako osoko bilkuran, espedientea behin-behinekoz onartu eta Arabako Foru Aldundira bidali zuen han behin betiko onespena eman ziezaioten.

OINARRIAK

Lehena.- Plan Berezi honen jardute eremua Trespuenteseko 40 zenbakiko lurzatia da eta berarekin R1 Aldearen Ordenantzak eraikitzeko ematen dituen aukerak aurrera eramateko behar diren bide publikoak definitu nahi dira.

Egungo lurzatiaren barruko bide publikoak definitzeaz gain, Planak lurzatiketa bat eta ezarpenerako ordenantza bat ere planteatzen ditu. Ordenantza hori, funtsean, aipatutako R1 Aldearen ordenantzaren kopia bat izango da.

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y URBANISMO

**2.641**

**ORDEN FORAL 289/2002, de 19 de abril, en relación con el expediente de Plan Especial de Reforma Interior en la parcela número 40 de Trespuentes.**

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante el escrito, con número 3109 y fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 20 de febrero de 2002, el Ayuntamiento de Iruña de Oca remitió el expediente del Plan Especial de Reforma Interior en la parcela número 40 de Trespuentes.

Segundo.- El expediente fue aprobado inicialmente el 25 de septiembre de 2001 por Resolución del Alcalde, y sometido a información pública por el plazo de quince días hábiles, mediante su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 117, del 15 de octubre de 2001, y en el diario “El Periódico de Álava” del día 31 del mismo mes y año.

Tercero.- Durante el periodo de exposición pública no fue presentada ninguna alegación, procediendo el Ayuntamiento, en sesión plenaria del día 13 de diciembre de 2001, a aprobar provisionalmente y expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Especial tiene por ámbito la parcela 40 de Trespuentes, y su objeto consiste en la definición de la vialidad pública precisa para el desarrollo de las posibilidades edificatorias que permite la Ordenanza de la Zona R1.

Además de la definición de la vialidad pública interior a parcela actual, el Plan incluye una parcelación y la ordenanza de aplicación que, básicamente, es reproducción de la citada de la Zona R1.

Bigarrena.- Aurkeztu diren agiriek indarrean dauden hirigintzako legeak eta Arau Subsidiarioetako erabakiak betetzen dituzte. Halere, lurzatiketak azpialde pribatuak bi lurzatitan zatitzea eskatzen du. Lurzati bi horiek 805 m$^2$ eta 3.312 m$^2$ izango dituzte. Azkenengo honetan, ezinbestez, beste lurzatiketa bat egingo da ordenantzak baimentzen dituen erakikuntzetara egokitzeko, eta hori horrela izan behar dela garbi dago, bertan, adibidez, familiabakarreko zortzi etxebizitza itsatsia eraiki ahal dira eta. Honi dagokionez, beraz, Planak hutsune bat dauka, ez baita logikoa familiabakarreko etxebizitzak xehetasunez antolatzeko tresna batek beharrezko den lurzatiketa ez jasotzea, eta lurzatiketaren ondorioz sortzen den lurzati bakoitzean ezargarri izango den ordenantza ere ez ezartzea.

Esandako hutsuneak konpontzearren, Plana benetako lurzatiketaz eta lurzati bakoitzaren erabilera eta hirigintzako eta eraikuntzako parametroei buruzko ordenantzez osatu beharko da.

Horren ondorioz, nere aginpidepean dauden ahalmenez baliatuz, hau

XEDATU DUT:

Lehena.- Trespuenteseko 40 zenbakiko lurzatiaren Barne Erreformako Plan Berezia behin betiko onartzea, honako aldaketa egin ostean:

A- Azpialde pribatuetan beharrezko lurzatiketa.

B- Lurzati bakoitzean baimenduta dauden erabilerak eta hirigintza eta eraikuntza aldetik bertan ezargarri diren parametroak araudian zehaztea.

Bigarrena.- Aurreko aldaketak ez dira funtsezkoak; beraz, behin aldaketak eginda espedientea Foru Aldundira igorriko da, aurretik jendearen aurrean jarri beharrik gabe, egiteratzeko dela adierazteko eta izapidetzeari eta argitaratzeari ekiteko.

Hirugarrena- Erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.- Erabaki honen aurka, administrazio bidea amaitzen baitu, ondoko errekurtsoetako edozein aurkeztu ahalko dute interesdunek. Horretaz gain, egoki iritzitako beste edozein neurriz ere balia daitezke:

a) Zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

b) Nahi izanez gero, aipatu errekurtsoa aurkeztu baino lehen, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete ebazpena eman duen organoari berari, edo errekerimendua beste administrazioek, hilabeteko epean egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren

Vitoria-Gasteiz, 2002ko apirilaren 19a.– Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

Segundo.- La documentación presentada cumple la legislación urbanística vigente y las determinaciones de las Normas Subsidiarias. No obstante, la parcelación plantea la división de las subzonas privadas en dos únicas parcelas: una de 805 m$^2$ y la otra de 3.312 m$^2$. Esta última va a sufrir ineludiblemente una posterior parcelación para adaptarla a los tipos edificatorios permitidos por la ordenanza, cosa que resulta evidente teniendo en cuenta que en ella se pueden construir, por ejemplo, ocho viviendas unifamiliares adosadas. Aquí, por tanto, el Plan presenta una laguna, pues no es lógico que un instrumento de ordenación pormenorizada de un ámbito de viviendas unifamiliares no incorpore la parcelación precisa ni establezca para cada parcela resultante la ordenanza concretamente aplicable.

Con objeto de subsanar las carencias indicadas, el Plan deberá ser completado con la parcelación real y las ordenanzas referentes a los usos, y a los parámetros urbanísticos y edificatorios propios de cada parcela.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Especial de Reforma Interior en la parcela número 40 de Trespuentes con las modificaciones consistentes en la incorporación de:

A- La parcelación precisa de las subzonas privadas.

B- La concreción en la normativa de los usos autorizados y los parámetros urbanísticos y edificatorios aplicables en cada parcela.

Segundo.- Las anteriores modificaciones no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de abril de 2002.– El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

## HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

**2.642**

**288/2002 FORU AGINDUA, apirilaren 18koa, Asparrena-Donemiliagako sektore industriala zabaltzea dela eta, Asparrenako Ordezko Arauak aldatzeko espedienteari buruz.**

AURREKARIAK

Lehena.- 2001eko abuztuaren 23an, Asparrenako Udalak hasierako onarpena eman zion, Asparrena-Donemiliagako sektore industriala dela eta, Asparrenako Ordezko Arauen aldaketa puntualaren espedienteari; hilabeteko epean espedientea jendaurrean jartzea ere erabaki zen. Hori betetzeko, iragarkiak argitaratu ziren 2001eko irailaren 10eko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean (103 zenbakia), 2001eko irailaren 5eko El Periódico de Álava egunkarian eta Udalaren iragarki-taulan.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzeko epean alegazio bat aurkeztu eta ebatzi zen; ondorioz, 2001eko urriaren 19an egindako bilkuran, Udalak behin-behineko onartu zuen espedientea, eta Arabako Foru Aldundiari bidali zion, hark behin betiko onar zezan. 2001eko abenduaren 3an sartu zen bertan.

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y URBANISMO

**2.642**

**ORDEN FORAL 288/2002, de 18 de abril, en relación con el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Asparrena, referente a la ampliación del sector industrial de Asparrena-San Millán.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 23 de agosto de 2001, el Ayuntamiento de Asparrena acordó aprobar inicialmente la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Asparrena referidas al polígono industrial de Asparrena-San Millán, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 103 de 10 de septiembre de 2001, en el Periódico de Álava del día 5 de septiembre de 2001 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de información pública, fue presentada una alegación, que tras ser resuelta, procedió el Ayuntamiento en sesión del día 19 de octubre de 2001, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 3 de diciembre de 2001.